

M.E.FULDAIN FARMAZIA	ERABILERA-ORRIA	Orria: Ietik 1 Rev.: 0 Data: 02.09.23 M-06.06.04-09.001
-------------------------	-----------------	------------------------------------------------------------------

M.E. Fuldain Farmazia
Elkano, 12
20808 GETARIA
943140441 tel.
mirenfuldain@redfarma.org

BASELINA SALIZILIKOA %1 EBD 100 G

Konposizioa:

Azido salizilikoa % 1
Baselina filantea % 99

Erabiltzeko modua:

Garbitu eskuak produktu hori eman aurretik eta ondoren, baldin eta tratamendua eskuetan ematen ari ez bagara. Baselina hori emandako ingurua asko gorritzen bada edo ukitu eta min egiten badu utzi tratamendua bertan behera sintoma horiek desagertu arte eta desagertutakoan berriz eman. Ez ukitu begiak eta mukosak produktu horrekin.

Arreta neurriak:

Ez erabili salizilatoei alergia izanez gero. Ez da komeni erabiltzea larruazala hazita edo harrotuta baldin badago, ez eta orinetan, jaiotzetiko marketan edo aurpegiko garatxotan ere, ultzerazioa edo nabarmen haztea eragin dezakeelako, batez ere gehiegi erabiltzen bada. Ez dago ikerketarik haurdun dauden emakumeengan zer-nolako ondorioak izan ditzakeen esateko. Dena dela bide topikotik hartuz gero zaila da arazoak sorraraztea. Esnetan iraitzi egin daiteke eta, beraz, bularreko haurrek aurkako erreakzioak izan ditzakete.

Gehiegizko dosifikazioa:

Bide topikotik soilik erabiltzen denez, oso zaila da gehiegizko dosifikazio arazoak gertatzea. Intoxikazio kasuak azaldu dira azalera handian eman edo dosi handietan hartu izan denean. Honakoak dira sintomak: nahasmena, zorabioak eta buruko min bizia edo etengabea.

Gordetzeko baldintzak:

Ontzia gorde behar duzu ondo itxita, 25 °C baino tenperatura gutxiagoan eta argitik babestuta.

MEDIKAMENTUAK UMEEN ESKUERATIK URRUN EDUKI BEHAR DIRA!

Medikua:

Kol. zk.:

Gaixoa:

Errezetategi zk.:

Posologia eta tratamenduaren iraupena:

Iraungipena:

Egilea: MEF Data: 02.09.23	Berriz aztertu: Data: 02.09.23	Onarpena: MEF Data: 02.09.23
-------------------------------	-----------------------------------	---------------------------------